

Heri Aldizkaria

Otamotz

1997ko urtekaritxoa



1997KO
URTEKARITXOA

AGURRA

Etori bezala joan da 1997 urtea. Era guztietako berriak izan dira urte honetan eta gu iaz bezalaxe garrantzi handiena izan dutenak biltzen saiatu gara urtekaritxo honetan. Guri dagokigunez behinik behin ez genion 1997 urteari oso hasiera ona eman. Irakurle lehialenek jakingo duzuen bezala, lapurrek Zintzo Mintzo elkarteko egoitzara sartu eta Otamotz aldizkaria kaleratzeko erabat beharrezkoa dugun material informatiko guztia eramán baitzuten.

Hala ere, zuen laguntzari esker, berriz ere martxan jartzea lortu genuen.

Urteari errepasoa egiterako orduan, bi herrietako gizarte, kirol eta kultura taldeek herriaren alde eginiko lana ezagutarazi eta aldi berean, esker-tu nahi genuke. Bide batez, udaletatik bultzaturiko ekitaldien berri ematen saiatu gara. Nahiz eta gertaturiko berri guztiak sartzetik izan ez dugun, funtsean, herriaren eguneroko martxa isladatzen saiatu gara gure uste apalaren arabera.

Besterik gabe, aurrez bilduma hau egiten lagundu diguten guztiak eskertu nahi genituzke.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du



URTARRILA

25: Herriko mendi expedizioko **Luismi Gonzalez, Jabi Areizaga eta Unai Badiolak, Aconcaguako 6952m gailurra egin zuten, Argentinan 14:10 eta Euskal Herrian 18:10 zirenean. Aconcagua, Amerikar kontinenteko gailurrik altuena da.**

25ean, Zintzo Mintzoko egoitzara sartu eta lapurrek bertan zegoen material informatiko guztia eramán zuten. Ondorioz, Otamotz aldizkaria, hilabete batzuetan ezin izan genuen kaleratu. Dena den, bi herrietako euskaltzale eta Zintzo Mintzok antolatutako ekitaldiei esker, berriz ere martxan jarri ginen. Lerro hauen bitartez, eskerak ematen dizkizuegu aurrera egingen laguntzeagatik.

1: **Goierri Mendi Taldeak** antolatuta, lagun askok Irimorako urte hasierako igoeran parte hartu zuten.

3: **Ezker abertzaleak**, herrian egindako mobilizazioengatik isuna jaso zuten.

5: Tradizioari eutsiz, **Erregeen kabal-gata** egin zen Zumarragan.


5: Javier Areizaga eta Pablo Gomezek, oinezko ibilbidea egin zuten Urretxutik Logroñora.

19: **Xabier Olasok**, Urretxu-Zumarragako literatur saria eskuratu zuten.

24: Nafarroako enparantzán, **Aguifesez, egoitza berria** zabaldu zuten, "Club Itzar" izenekoa.

24/25: Ertzaintzak **Amalur eta Aldiri elkarteak arakatu** zituen kale borrokarako materialaren bila.

25: **Zintzo-Mintzoko** Batzar Nagusia burutu zen.



8: **Ezindu fisikoen normalkuntzarako** II. jardunaldiak antolatu ziren.

12: **Mikel La Iglesiak**, Santa Lutzitako argazki lehiaketa irabazi zuen.

15: **Zumarragako urak** garbitzeko lanak hasi ziren.

16: Bi herrietako Euskara Batzordeek, **Herri Telebista euskaraz** emititu behar dela esan zuten.

31: "Txintxin hotsak ez du Gregorio kezkatzen" lana antzeztu zuten Pagoeta antzokian.

Baita urtarrilean ere:

1998. urtean, Zelai-Aristi zinematik ateak zabalduko omen ditu, Zumarragako Udalak eta zinema-aren jabeak hile honetan sinatutako akordioaren arabera.

OTSAILA

11: Ume asko mozorrotu zen ihauterietako asteartean. Eskola ezberdinetako gaztetxoak, arratsaldean eginiko kalejiran, era guztietako mozorroak erakutsi zituzten. Amaieran, kalebarrren-Areizaga enparantzan batu ziren guztiak eta Egan taldearen abestiekin, dantzatzeko aukera izan zuten. Gauean berriz, jende helduaren ordua iritsi zen. Hauen artean ere, oso giro ona izan zen.

20/ 23: Norbert Reht, Schwarzenbruck-eko alkattea, bere emazte eta idazkariarekin batera Urretxun izan genuen bisitari. Iaz, Urretxu eta herri alemaniarra anaitu zireneko bosgarren urteurrena bete zen. Hiru egunean izan ziren Urretxun eta aurrera begira elkarrekin burutuko dituzten asmoen berri hitzegun zuten.

5: Santa Ageda eguna zela eta urteroko ohiturari jarraituz, heritar ugari aritu zen kalean kantuz-kantu.

5: Zumarragako Argixao auzoko bizilagunak, Hirigintza saileko bilerrara joan ziren bizi zuten egoeraz kexatuz.



7: Iñurategi anaiek Kangchenjunga eta Shisha Pangma mendietara egindako ibilaldietako diapositiba emanaldia eskaini zuten Legazpi Eskoletako aretoan.

7/16: Zelai Ariztiren 25. urteurrena zela eta argazki erakusketa bat antolatu zuten Itarte Etxean.

8: Urretxuko Lurra dantza taldeak Lantzeko ihauteriak gogoratu zituen bertako dantzak dantzatuz.




9: Irrintzi dantza taldearen eskutik Altsasuko ihauteriak ikusteko parada izan genuen. 30 lagun inguruk osatutako kalejira burutu zuten bi herrietako kaleetan zehar.

9: Mairi emakume elkarteak antolatuta autobabes eta prebentzioa sustatzeko ikastaroa eskaini zen.

12: Zintzo Mintzok haurrentzako zinea antolatu zuen Pagoeta antzokian.

14: Goierri K.E.ak mendi irteera antolatu zuen Malerreka bailarara.

15: Roman Sudupe diputatu nagusia Urretxun izan zen **Jazkilanen** berri jakiteko asmoz.



16: Zelai-Arizti ikastetxearen 25. urteurrena zela eta argazki erakusketa izan zen.

16: Aldiri Kultur Elkarteak antolatutarik Ekuadorreko problematika aztertzen zuen hitzaldi bat izan zen Urretxuko kultur etxean.

27: "Euskara hobetu, akatsak zuzendu" lemapeko ikastaroaren lehen saioa izan zen Pagoeta Antzokian. **Zintzo Mintzok** antolatu zuen ikastaro hau.

MARTXOA

2: I.go Antigua Abesbatzen lehiaketa egin zen. Infantil mailako Gipuzkoako lau abesbatz eta Bizkaiko beste bat aritu ziren. Astebete beranduago, jubencil eta senior mailako abesbatzak kantatu zuten Antiguan. Epailen saria Sine Nomine Iruñako koruak jaso zuen eta jendearen saria berriz, Urretxu-Zumarragako Kimets -Goiargik.

14: korrikaren 10. edizioa, AEK-k antolaturik Zumarraga eta Urretxutik igaro zen. Arantzazun hasi eta Oñati eta Legazpi zeharkatu ondoren, gure herrietan barrena ibili zen. Lehenengo erreleboa Bisasti AEK euskaltegiaren aurrean izan zen, Legazpi kalean. Korrikaren pasaldia aprobetxatuz, afaria egin zen Ederrena pilotalekuan gaueko 10 etan.

1: Jiu-Jitsu elkarteak antolatuta, Zumarragako I.go Jiu-Jitsu txapelketa jokatu zen Ispilla polikiroldegian. Salamanka, Nafarroa, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako borrokalaria aritu ziren.

8: Nerea Rodrigex eta Victor Enrique urretxuarrak Emakumearen Eguneko Kartel lehiaketan, bigarren saria irabazi zuten.

10: Peio Gonzalezek, Urretxuko alkateak, soldaduzkako zerrendak ez emateagatik Epaitegian deklaratu zuen.

13: Jazzteku musika saioen hasiera. **Hits & Fits** taldeak eta **Gaztelekuak** antolatu zituzten musika saio hauek.



13: Olatz Goibururen margo erakusketa egon zen Aldaketan.

15: Gu Sport kirol aldizkaria martxan jarri zen.

20: Urola Garaiko Lanbide Eskolak enpresarietzat lehenengo hitzaldiak antolatu zituen.

20: Goierri Kirol Elkarteak mendi-irteera antolatu zuen Araba eta Burgos artean dagoen Umion bailarara. Umionen gailurretik, (1434) egun argietan, bederatzi probintzi ezberdinetako mendiak ikus

daitezke.

23: Txirri, Mirri eta Txiribitonena Pantera Beltza izeneko espektakulua Ederrena pelotalekuan.

27: Urolaren 25. urteurrenaren ekitaldien barnean, alebin mailako II. Iñaki Mendiluze txapelketa jokatu zen. 8 talde gipuzkoarrek hartu zuten parte.

28: Musika Eskolako ikasleek "Donostia Hiria" piano lehiaketan sariak lortu zituzten.

29: Errealaren jubencil mailako Nazioarteko Txapelketaren baruan, **Borussia eta Osasunak** indarrak neurtu zituzten Argixion.

31: Igor Elgarresta txistulari zumarragar gazteak bizia galdu zuen Uharte Arakilen gertatutako tren istripuan. 15 bat herri-tar zetozen trenean istripua gertatutakoan.

Baita ere martxoan: Ormazabal anai-arrebek Golden dantzatokiaren jabetza izateari utzi zioten.



APIRILA

Apirileko hilabetea, antzerkiaren hilabetea izan zen bi herriotan.

19: Scaramouche nafar taldeak "A mi que me cuentas" izeneko antzez-lana aurkeztu zuen Urretxuko Pagoeta antzokian. Antzezlan hau, Carlos Merino "Fly"-ren omenez burutu zen.

21/ 27: Urretxu-Zumarragako Josu Etxeberria XI. antzerki astea izan zen. Guztira, zortzi obra antzeztu ziren. El Florido Pensil, Humedades, Torito Bravo, Piscueetes, Pinotxo, ¿Y quién no?, Mentiras eta La sombra del Tenorio lanak ikusi ahal izan genituen. Beste askoren artean, umore, drama eta umeen-tzako antzezlanak egin zituzten guregana hurbildu ziren izen handiko antzerki taldeek.

2: Erreal eta Eibarren arteko maila goreneko futbol partida jokatu zen **Argixaon**. Partidua, Urolaren 25. urteurrenaren ekitaldien barnean ospatu zen. Partiduko emaitza, banakoa izan zen. De Paula eta Joseba Arregi izan ziren golegileak.

4: Sekundino Esnaola kaleko **"Eusko Izarra"** etxea bota zuten. Lau egun beranduago, ondoan zegoen **"Cruz Alta"** etxea.

7: Antion, umeentzako jolasak, txokolatada, herri kirolak eta erromeria izan ziren Bazko Astelehenean.

12: Otamotzen aldeko bertso jaialdia Beloki pilotalekuan. Juanjo Sagastibeltza gaijartzaile izanik, **Sarasuak, Amurizak, Iturriagak eta Euskitzek** saio ederra eskaini zuten.

20: Angel Arrospeidek ezin izan zuen Joxe Mari Olasagasti garaitu aizkora apostuan. Igeldokoak bost minutuko alde atera zion Zumarragan bizi den leaburutarrari. Milioi bat zegoen jokoa.

22: Gozategi taldearen jaialdia Zelai Ariztiko pelotalekuan, bertako ikastetxearen 25. urteurrenaren ospakizunen barnean.

24: Santi Gutierrezzi, Euskal Herriko Txistulari Elkarteak zilarrezko domina emateko erabakia hartu zuen bizitza osoan arlo honetan eginiko lanagatik. Domina Urretxuko festatan ezarri zitzaion.

26/27: Zumarragako Jiu-Jitsu eta Judo taldeek, zazpi domina lortu zituzten Euskadiko Txapelketetan.



16: Joan Mari Irigoien idazle ezagunak euskaltegiko ikasleei zuzendutako hitzaldi interesgarria eman zuen Kultur Etxean. Antolatzailea, Udal Euskaltegia.

20: Gorka Ojanguren bertsolari urretxuarrak **Gabiriko XVI. Osinalde Sarian** parte hartu zuen. Irabazlea, Orioko Xabier Sukia izan zen.

20: Asier Otamendi bertsolari urretxuarrak **Prudentzio Deuna-Estibalizko Ama VIII. bertso txapelketa** irabazi zuen.

27: Extremadurari buruzko V. Jardunaldi kulturala.

Baita apirilean ere:

Gorka Zufiaurre urretxuarra bere areba Sararekin batera, ATZEGIKO kartelaren protagonistak.

Zumarraga nagusi herri arteko pilota txapelketan, Urretxuren aurka.

MAIATZA

10: William A. Christian Jr antropologoak "Las visiones de Ezkioga" liburua aurkeztu zuen Zumarragan. Aurkezpenean, antropologoak emaniko hitzaldi eta diapositiba emanaldiarekin gozatzeko aukera izan genuen. Liburuan, 1931. urtean II. Errepublika aldarrikatu eta handik gutxira Ezkion izandako Ama Birjinaren agerraldiei buruz dihardu.

31/1: Euskadiko XVI. eskolarteko jokoak burutu ziren Zumarraga eta Urretxun. Kirolzale gaztetxo askoren bisita jaso genuen asteburu honetan.

3: Zelai Arizti zinea berritzeko proiektua Ramon Losada Rodriguez arkitektuak egiteko erabakia hartu zen.

3: Ingurugiroaren IV. astea ospatu zen Lourdesko Ama ikastolak antolatuta. Hainbat lehiaketa eta erakusketa izan ziren.

8: Urretxuko Udalak Gernikako Arbola enparantza berritzeko ideien lehiaketa antolatu zuen.

9/18: Aldiri Kultur Taldeak antolatuta maskaren erakusketa izan zen Aldiri tabernan ikusgai. Pili Vieintes eta Andoni Arostegirenak ziren maskarak.



10: Zumarragan jaio eta Urretxun bizi den Gurutze Fernandez, futbol jokalaria, 18 urte azpitiko Espainiako Futbol taldean jokatzeko deia jaso zuen.

13: Bi herrietako kultur Batzordeek, narratiba eta poesiarako Iparragirre sariak antolatu zituzten. Sariak, 1998ko urtarrilaren 18an banatu ziren.

15/18: Eitzako San Isidro Jaiak.

17: Urola Garaiko Gurutze Gorriak ambulanzia berria aurkeztu zuen Zumarragako Euskadi enparantzaren.

18: Familia eguna ospatu zen Lourdesko Ama Parrokian. Eusebi Bastarrika (94 urte) eta Juan Migel Salaberria (89 urte) cruzoko zaharrek omendu ziren.

19/20: AGUIFESek sentzibilizazio

kanpainaren banean 2 hitzaldi antolatu zituen Legazpi ikastetxeko aretoan.

19/23: Goierri K.E-ak antolatuta urteroko futbol sala txapelketa jokatu zen Aldiri kiroldegian. 24 taldek hartu zuten parte.

22: Europar Batasunak, Zelai Arizti zinema berreraikitzeke 36 milioiko diru laguntza emango zuela jakin zen.

25: Oleta mendian Trinitade eguna ospatu zen giro ezin hobean.

25: Urretxuko Tourseko Martin Deunaren elizan Jose Manuel Begiristain eta Nikolas Elgea klarnetisten kontzertua. Pianoan, Pedro Rodrigezek lagundu zien.

27: Otamotz aldizkaria Internet sarean irakurgai.

28: Mairi emakume taldeko zenbait partaide Orreagara, Donibane-Garazira eta Senpereko aintzirara joan ziren ibilaldi bat egitera.

Baita maiatzean ere:

Maiatza erdialdetik ekainaren hasiera bitartean **Berriketa** izeneko tertuliak antolatu dira Urretxun-Zumarragan, **Zintzo-Mintzok antolatuta**, **Bisasti AEK-ren eta Udal Euskaltegiaren laguntzarekin.**

Angel Merino eta Pepe Requejoren zuzendaritzapean Amador izeneko film laburra irarri zen Zumarraga-Urretxuko kaleetan.

Bi tartean Elkarteak UGGASArekin Zumarraga-Urretxuko denda txiki eta ertainen egoerari buruzko ikerketa burutu zuten.

Urola futbol taldeak 17. postuan amaitu zuen liga eta ondorioz, 3. mailatik preferentera jeitsi zen.

EKAINA

**Ekainaren bukaer-
ran Iburreta
Behekoa baserria
bota eta Euskal
Autonomi
Elkarteko lehenen-
go adin gutxikoen
berreziketarako
zentrua erakitzeko
lanak hasi ziren .
Zentrua eraikitzeko
erabakiak aurkako
iritziak sortu zituen
zenbait herritarren-
gan. Zentroa,
Zumarragako Gazte
Gartzela moduan
ulertzen baitute.**

29: Jorge Oteiza-
ren "Itziar" izeneko
eskultura inaugu-
ratu zen. Bere pre-
sentsiak ikusmin
handia sortu zuen
herrian. Bere
emaztea zenaren
omenez eginiko
eskulturak, 6 tona-
ko pisua eta 4
metrotako altuera
du.

1: Zumarraga-Urretxuko Irrintzi
dantza taldeak antolatutako
Dantzari Txiki Eguna.

4: Herentzia eta testamentuak ize-
neko hitzaldia Kultur Etxean Mairi
emakume taldeak antolatuta.

7: Goiargi Abesbatzak bi emanaldi
arrakastatsu eman zituen Toledon.

7: Promociones Madaya areto
futboleko taldeak, Euskadiko kopa
irabazi zuen Urretxun.



5/10: Hondakinez egindako esku-
lanen erakusketa Aldaketan.

6/15: Jose Luis Agirre margolari
zumarragararen erakusketa Itarte
Etxean.

8: Mountain Bike proba burutu
zen Zumarragan Euskadiko
Koparako baliogarria izan zena.

9: Arantxa Albisuak Eguzkia eta
eguzki alergiaren prebentzioak ize-
neko hitzaldia eman zuen Kultur
Etxean.

13/15: San Anton Jaiak

Kalebarrenen.

14: Urola - Ilintxa beteranoen arte-
ko partidua. Ondoren afaria, 25.
urteurena zela eta.

14: Urretxuko igerilekua zabaldu
zen.

20/30: Iker Antia margolari urret-
xuararen erakusketa Aldirin.


21: Oskorri eta Kukubiltxoren ema-
naldia Gemikako Arbola Plazan.

22: Urretxuko
Lurra dantza tal-
deak antolatutako
Dantzari Txiki
Eguna. Igor
Elgarresta zenari
eskeinitako ome-
naldia.

23/24: San Juan
jaiak ospatu ziren
Urretxun.

27/28:
Saskibaloiko 3x3
I.go Urretxu saria.

29/6:
Zumarragako
Santa Isabel Jaiak.



UZTAILA

17: Miguel Angel Blanco Ermuko PPko zinegotziaren erailketak gure bi herriotan ere oihartzuna izan zuen. Hilketa hau gaitzesteko jende ugari bildu zen manifestazio batean. Bestalde, Zumarragako alkateak, Joxean Alustiza, HBko zinegotzia, udaletxean zituen karguetatik kanpo utzi zuen.

31an, erabaki berbera hartu zuen Urretxuko alkatetzak. Jesus Mari Urbegain Urretxuko HBko zinegotziarekin.

18: Angel Merino eta Pepe Rekejok eginiko laburmetraiaren estreinaldia izan zen Pagoeta an-tzokian. Aktoreen artean, Juan Luis Eskudero, Rosa Martinez, Ainhoa Izagirre, Oskar Kadierno eta Cheikk A. Boualem aritu ziren. Haez gain, bestelako lanak egiten herritar askok lagundu zuten.

7/18: Urretxu-Zumarragako II. Herri Olinpiada.

8: Rogelio Botanz abeslariaren emanaldia **Hits&Fits** taldeak antolatutako Folkgasmo musika emanaldian.

11: **Ostadar Mendi Taldea** Europako Mendietara joan zen.

11/13: Geltokietako Jaiak.



15: Iñaki Beitia hil zeneko lehenengo urteurrena. Data hau zela eta bost egun beranduago, bere omezez lagunarteko igoera egin zen Irimora.

16: Juan Luis Aranburu Urretxuko udaltzainen buru izendatu zuten.

16: Asier Larraza, Unai Buron eta Ibon Salaberriak erakusketa egin zuten Itarte Etxean.

16/20: Amador laburmetraiaren filmazioan erabilitakomaterial grafiakoaren erakusketa Aldaketa erakusgelan.

18: Zumarragako Jubilatua Gipuzkoako Mus eta Briska txapelketan, irabazle.

19: Drogomenpekotasunari buruzko hitzaldiak Gaztelekuk eta Askagintzak antolatuta.

22: Eusko Jaurlaritzak 35 milioi eskaini zituen Argixaoko zonaldea berreraikitzeke.


23: Zumarragako Gobernu Batzordeak Zelai Arizti zinea erosteko oneritzia eman zuen.

24: Zumarragako udalak, 2.625.908 pezetatoko diru laguntza eman zien Venezuela eta Nikaraguari.

24: "Enjoy English" udalekuak, antzerki bat antzetzuz amaitu ziren.

25/27: Somiedoko Parke Naturalera txangoa, Goierri kirol Elkarteak antolatuta.

29: Urretxu-Zumarragako Lora lehiaketako sariak banatu ziren.



Baita ere uztailean ere:

Aitor Gonzalez urretxun jaioetako txirindulariak 23 urte azpiko Espainiako txapelketa irabazi zuen Melillan. Caja Rural taldeko txirindularia erlojupekoan nagusitu zen.

ABUZTUA

Abuztuan, eguraldi onegirik egin ez zue-
nez, jende gutxi ibili
zen Urretxuko igeri-
lekuan. Horrezaz
gain, batipat, lehe-
nengo hamabostal-
dian, jende asko kan-
pora joan zen opo-
rretara.

23/31: Hamaika herri-
tar, Urretxu-rekin
anaiaturik dagoen
Alemaniako
Schwarzenbruck
herrian izan ziren
bertan ospatutako
Gazte Topaketa bat-
zuetan.

Bueltan, beren espe-
rientzien berri izan
genuen Otamotzen.
Gazte Topaketan
parte hartutako
ordezkariak, euskal
sukaldaritzarekin
txunditurik gelditu
omen ziren.


6: Gazteleku berria eraikitzeko
ideien lehiaketa jari zen martxan.
Lanak aurkezteko epea, irailak 8a
izan zen. Modu honetan, gazteek,
beraien ideiak plazaratzeko aukera
izan zuten.

8: Garaialde Lizeoa berrizteko
akordioa lortu zen. Obrak, 14 milioi-
ko aurrekontua du.

15: Zumarragako Ezpatadantza
dantzatu zen parrokian.

16: Urretxuko alde zaharra hobetze-
ko udal eta Eusko Jaurlaritzaren
arteko akordioa.

17: "Rally Villa de Bilbao" kotxe
zaharren lasterketa, Zumarragara
iritsi zen.



9: Labeaga kaleko espaloietan ko-
txeak ez aparkatzeko piboteak jarri-
ko zirela jakin zen.

20: Miguel Lopez Legazpi zumarra-
gararen heriotzaren 425. urteurre-
na.

23: Urretxu eta Zumarragako uda-
lek argazki lehiaketa antolatu
zuten.

24: Komiki eta Bertso paperen
lehiaketa antolatu zen.

Baita abuztuan ere

Urretxuko udaletxean kexak jaso
ziren zaborrak sortzen zuen usaina-
rengatik.



IRAILA

14: Zumarraga, Urretxu eta kanpoko 164 mendizalek hartu zuten parte Iñaki Beitiaren omenezko I. Iraupen Luzeko Mendi-ibilaldian. Ibilbide motza eta luzea izan ziren aukeran. Motzak, 17,5 kilometroko luzera zuen eta luzeak, 37 kilometrotakoa.

Iraileko larunbatean bestalde, Antiguako XIV. Musikaldia burutu zen. Elizondo organoan eta Etxepare, Sancasto, eta Castillo tronpetan, "The Hilliard Ensemble", "Quinteto Philharmonia" eta "Sine Nomine" abesbatza entzuteko parada izan zen.

6: XVI. Goierriko Itzuliaren aurkezpena udaletxean.

7: Urretxu-Zumarragako 50 biztanle inguruk, jaso zuten saria lora lehia-ketan.



9: Akelarre elkarteak antolatutako Urretxuko jaietan larunbatean egingo zen gastronomi lehiaketa.

10: Eguraldi txarraren ondorioz, igerilekuko denboraldia nahiko eskasa izan zen aurkeztutako balantzearen arabera.

11/15: Gorka Hermosa akordeoilariak Suizan jokatu zuen Munduko Kopan bederatzigarrena izan zen.

12: Kandido Izagirre urretxuarraren heriotzaren 30. urteurrena.

12/14: Goierriko Txirrindulari Itzulia. Peio Arreituncindia txirrindularia izan zen Itzuliko garaileak.

13/14: Urretxuko alkate eta kultura zinegotzia Bonn-en egon ziren Europar Elkarteak gonbidaturik anaikidetasunari buruzko jardunaldiak.

14: Urretxuko jubilatuen eguna.

14: Beloki Mendiko Gurutzearen festara jende asko hurbildu zen.

15: Secundino Esnaolaren alaba den Maria Angeles Esnaolak Zumarraga bisitatu zuen.

18: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta Urola Garaiko Mankomunitatearen arteko Hitzarmenaren sinadura.

18: Arte Ederretako Herri Eskolako ikasleek erakusketa egin zuten Itarte Etxean.

19/21: Santa Anastasia Jaiak Urretxun.

22: Unai Alzelai urretxuarra, Zintzo-Mintzoko teknikari berriaren lanpostuan.

23/26: Zumarragako Salvador parrokiako kideek, Fatimako Santutegira, (Portugalera) ibilaldia antolatutako zuten.



Baita irailean ere:

ANSAk, 25 urte bete zituen Zumarragatarroi ura banatzen.

URRIA


4: Zumarragako herriko seme den **Ñaki Urdangarin Bartzelona taldeko eskubaloia** jokalaria, Espainiako erregearen alaba gazteenarekin, **Cristinarekin**, ezkondu zen **Bartzelonan**. **Zurumurrua** zabaldu zen unetik aurrera, gure herri lasaiak hainbat paparazziren bisita jaso zuen. **Espainiako komunikabide ugari** Zumarragan izan ziren albiste bila. **Herriko senitarteak** ezkontzan izan ziren.

31/2: "Mineral, fosil eta harri bitxiak X. edizioa" ospatu zen **Urretxun**.

2: Zumarragako plazan dagoen **Miguel Lopez Legazpiren omenezko estatuaren** mendeurrena.

Informazio historikoaren aldirik buzoneatzen hasi zen.

6,13,20,27: Mairi elkarteak antolatutako **Lasaitze ikastaroak**.



7,14,21,28: Mairi elkarteak antolatutako **Estainu eta kobrea** lantze ikastaroak.

8: Mairi elkarteak antolatutako **Mirarizko Produktuak** izeneko hitzaldia.

8: AGUIFESek antolatutako **Depresio Psikikoa** hitzaldia Ezkio-Itsason.

9: AGUIFESek antolatutako **Animazio Gizakulturala eta Gaixotasun Psikikoak** izeneko hitzaldia, Urretxuko Kultur Etxean.

10: **Gernikako Arbola berraldatze**ko ideien lehiaketaren emaitzen aurkezpena. **Victor Hernandez** urretxuara garaile suertatu zen.

15: AGUIFESek antolatutako **Zergatik ditugun Gaixotasun Psikologikoak?** izeneko hitzaldia Urretxuko Kultur Etxean.

16,18,19: **Mikologia** asteburua Aldiri Kultur Elkarteak antolatuta.

19: **Asier Otamendi** Hendaian jokatutako Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako kanporaketan parte hartu zuen.

8: **Arraingorriak** Taldeak *Los alar-des: el día después* hitzaldia eman zuen. **Rosa Sanchez** Irungo zinegotziak hitz egin zuen.

3,4,10: **Eskola Kiroleko Begiraleentzako** ikastaroa Garaialde Lizeoan. Antolatzaileak: **Zumarraga eta Urretxuko Kirok** Zerbitzuak.

12: **Aurpegia** estaliriko hiru ezezagunek **kotxe bat** erre zuten **Gernikako Arbola** enparantzan.

9/19: **Ana Mari Perez** margolariaren pintura erakusketa, **Aldaketa** erakusgelan.

7/16: **Alberto Cerezo** margolariaren pintura erakusketa, **Itarte Etxean**.

25: **Urretxu-Zumarragako udalek** antolatutako **Pintura eta Argazki** Lehiaketaren sari banaketa.

Baita urrian ere:

Urrian eta azaroan burutu zen **Udazkeneko XII. Musika zikloa Urretxun**. **Goiargi eta Kimets** Goiargik, **Donostiako Kanta** Kantemus-ek, **Bilboko Koruak** eta **Argentinako Coro Juvenil del Teatro San Martin** delakoak abestu zuten.

Goierri mendiz mendi izeneko liburua argitaratu zuten. **Goimen**, **Uggasa**, **Goieki** eta **Gipuzkoako Mendi Federazioak** egindako liburuan **Goierri osoko mendi ibilaldiak** eskura daude.

AZAROA

11: San Martin egunean elkarteetan afariak antolatu ziren eta festa, bai kale zein Agiñako auzoan bizi izan zen.

Bestalde, Zumarragako Areto Nagusian, Ormaiztegi eta Bergara arteko errepidea egiteko lanen proiektua erakutsi zen. Beasain-Durango errepide berriak hainbat kezka sortu ditu herrian. Batzuk beharrezkoa ikusten duten bitartean, beste batzuk kezkatu agertu dira errepide honen nondik norakoekin. Horrexegatik jarri ziren lanak ikusgai.

14: Secundino Esnaola musika eskolaren batzar orokorra.

14: Arin-arin eta fandango ikastaroa Lurra dantza taldeak antolatutik.

23/30: Ostadar Mendi Taldeak Mendi Astea antolatu zuen.



28/8: Javier Fernandez, argazkilaria eta biologoaren argazki erakusketa Itarte Etxean.

26: Adin gutxikoen Berreziketarako Zentruaren kontrako Gazte Gartzelaren Aurkako Plataforma gaiari buruzko solasaldiak eman zituen Gaztelekun.

28: Sukaldari Gazteentzako Lehiaketan Ludotekako gazteek irabazi zuten 1. saria.

30: Juan Urzelaik, -Juanitok- Zumarraga-Urretxuko mendizaletasunari emandako laguntzagatik,

Ostadar Mendi Taldeak oparitutako plaka jaso zuen Acedon (Nafarroa) egindako mendiko lagunarteko bazkariaren ostean.

Baita azaroan ere:

Presoak Euskal Herriratzeko gosegreba egin zuten Goierriko zenbait herritako lagunek. Goerriarrak garenez, Zumarraga-Urretxuko

ordezkariak ere bertan izan ziren.

Lanbide Eskolak langabetuentzako ikastaroak antolatu zituen.

Secundino Esnaola musika eskolak bere irakaskuntza eskaintza handitzea erabaki zuen. Dantza ikastaroak ere emango ditu hemendik aurrera.

Osasun Jardunaldiak burutu ziren **Zumarraga Gure Txoko** elkartean.



ABENDUA

13: Santa Lutzitako feria izan zen bi herriotan. Urretxu eta Zumarragako udalek gero eta ekitaldi gehiago antolatzen dituzte elkarrekin. Aurten gainera larunbatan izan zen eta honek jende gehiago erakarri zuen ferira. Egun bat beranduago Jose Salegi, "Belarreta"ri, merezitako omenaldia egin zitzaion.

31: Urtea agurtzeko modu berri bat pentsatu zuten 15 mendigoizalek "Igo San Silvestre" mendi irteera burutzuz. Urteak pasa ahala, ohitura bihurtzea nahi da mendi irteera hau.

3: **Euskaraokea** Zumarragan. Itziar Orexak eta Aitor Furundarenaren saioa Zumarragako plazan irarri zen.

3: **Xabier Montoia** abeslariaren kontzertua Gaztelekun.

7: **Jesus Mari Debak** eskuratu zuen Busca Isusi Buskantza Lehiaketa.



7: **Mari Lurdes Aranburu eta Pia Esnaola** emaginei omenaldia egin zitzaion. 160 pertsonatik gora izan ziren bazkarian.

12: **Luzio Gabiriaren Omenezko bertso saioa** Beloki pilotalekuan. Jon Maia, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso eta Juan Mari Peñagarikanok parte hartu zuten.

12: **Somotoko (Nikaragua) alkatea Zumarragan** izan zen bisitari. Udaran emandako diru laguntza eskertzeko.

12/21: **Benigno Albenizen** egurrezko eskulanean erakusketa Itarte Etxean.

13: **Azpillaga-Urarte** ardandegia izan zen Urretxun egindako Arabar-Errioxako ardo lehiaketan irabazle.

14: **Jon Maia** Euskal Herriko bertsolari txapelketa nagusian 7. geratu zen.

16: Apezetxea goizuetarra banaka eta Esain-Pinedok bikoteka, "Goñiren omenezko pelota txapelketa" irabazle.

17: Goizeko 11etan hasi zen **elurjasak**, zuritu egin zituen bi herrietako kale eta mendiak.

19: **Mankomunitateko aurrekontua** onartu zen EA, PSE-EE eta EAJren botuei esker.

19: "Optika Urretxuk", irabazi zuen Urretxuko gabonetako eskaparate lehiaketa.

20: Zumalore lore denda garaile Zumarragako gabonetako **eskaparate lehiaketan**.

22/ 3: **II. Gazte Astea** Zumarragan.

24: Ume nahiz heldu ugari ibili zen kale eta baserrietan kantuan, **Gabon Egun** bezperako ohiturari eutsiz.

24: **Olentzeroren bisita** izan genuen.

24: **Zumarragako**, PSE-EE, EA, EAJ eta PPko zinegotziek, **1998. urteko aurrekontua onartu zuten**.

29/ 30: Euskadi Enparantzan, **Gazteentzako Jolas parkea** egon zen.

Baita abenduan ere:

Zumarragako txistulari alardeak **Igor Elgarresta**, istripuan hildako txistularia gogoratu zuen.

Haurrentzako 9. **Idazlan eta Chrisma lehiaketa**.